



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko ekainaren 22an

69 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tribuuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izan den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian nola banatuko den ezartzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tribuuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdian zenbatekoa izan den eta nola banatuko den ezartzen duena. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontrautasuneko errekurtsoa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka. Atzera bidalitako mozioa (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan. Osasun Batzordeak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan. Osasun Batzordeak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “biharamuneko pilula” eman dezan. Osasun Batzordeak onetsia (11. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa (12. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Legea, abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatzen duena

Maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatu du.

Foru Lege honen aurreikuspenek debekatu eta zehatzen dute kasu guztietan animalia proteinak erabiltzea edozein motatako azpiproduktuak prestatzeko, gero beste animalia batzuei jaten emateko, laguntasuneko animaliak barne. Aurreikuspen horietan arazo larriak agertzen dira: batetik, arazo juridikoak, merkatuaren askatasuna eta salgaien zirkulazioa Europar Batasunean barna gobernatzen dituzten irizpenen zein Espainiako Konstituzioaren hainbat manuren kontrakoak baitira, baina batez ere, arazo praktikoak sortuko dira, oinarri zientifiko sendorik izan gabe debekatu duelako produktu sorta zabala, bai ekoizpenerako abereei bai laguntasuneko animaliei jaten emateko erabili ohi dena eta Europar Batasunean baimenduta dagoena.

Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legea aldatu zuen maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legea bere horretan aplikatzen bada, ondorio latzak izanen ditu, duten izaera biologikoa dela-eta, bere elikaduran animalia proteinak behar dituzten animalien, esate baterako, arrain, orojale eta haragijaleengan, proteina

horien orde ezin baitituzte landare proteinak erabili.

Horiek horrela, beharrezkoa da Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legean emandakoa, lehenbailehen aldatzea, haren aplikazioak sortuko lituzkeen ondorio txarrak saihesteko.

1. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen 26. artikuluko 2. idatz-zatiaren erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandakoa, aldatu da. Hona hemen testu berria:

“2. Ezin izanen da animalien gorpurik edo haien zatirik erabili, animalia azpiproduktuak prestatzeko, gero beste animalia batzuei jaten emateko, laguntasuneko animaliak barne; guztiz debekatuta dago haiek erabili eta aprobetxatzea, Europar Batasuneko eta nazioko egungo araudi oinarrikoek baimendutako salbuespenak ez badira.

Animalia proteina eraldatuen erabilpena animalien elikagaiak prestatzeko, Europako komunitateko eta Espainiako osasun arau oinarrikoen lotuko zaie.

Nolanahi ere, giza kontsumorako hil ez diren animalien gorpuak eta proteinak ezin izanen dira erabili ezein motatako azpiproduktu prestatzeko ez eta beste animalia batzuei, laguntasunekoak barne, jaten emateko, eta guztiz debekatuta dago haiek erabili eta aprobetxatzea, erregai gisa ez bada.”

2. artikulua. Abereen osasunari buruzko Foru Legearen 56. artikuluko 8. idatz-zatiaren erredakzioa, maiatzaren 24ko 11/2001 Foru Legeak emandakoa, aldatu da. Hona hemen testu berria:

“8. Dekomisaturiko gorpuak, erraiak edo hondakinak tratatu eta aprobetxatzeko jarduerak.”

3. artikulua. Abereen osasunari buruzko azaroaren 16ko 11/2000 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarria aldatu da. Hona hemen testu berria:

“Laugarrena. Animalien pentsuak kontrolatu eta suntsitzea.

1. Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, osagaien artean giza kontsumorako hil ez diren beste animalia batzuen gorpuen elementuak dauzkaten animalientzako pentsu konposatu guztiak suntsitu beharko dira.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, erregelamendu bidez garrantuko du beste animalia batzuk elikatzeko pentsuen fabrikaziorako legean ezarritako baldintzak betetzen ez dituen animaliarik erabil ez dadin kontrolatzeko prozedura.”

Azken xedapena

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, saltoki handietarako zerga bat sortzekoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako saltoki handietarako zerga bat sortzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko maiatzaren 15ko 51. Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzen duena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbatekoa izanen den eta 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan nola banatuko den ezartzen duena".

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Foru Lege proposamen hori aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 2001eko apirilaren 20ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztutako etxeko indarkeriari eta bikotekideen artekoari aurrea hartzeko neurriei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori

2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duena

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko foru lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa 2002tik 2004ra bitarteko aurrekontualdietan zenbatekoa izanen den eta nola banatuko den ezartzen duena".

Biltzarrak, 2001eko ekainaren 14an egindako

Osoko Bilkuran, foru lege proposamen hori baztertzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19zan

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 14an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, gobernu zentrala premiatzen da enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko 5/2001 Errege Lege-Dekretua erretira dezan

1. Enplegua gehitzeko eta haren kalitatea hobetzeko lan merkatuaren erreformarako presako neurriei buruzko martxoaren 2ko 5/2001 Errege Lege Dekretu bidez eginiko lan-arloko erreformaren aurka dagoela jakinaraztea Gobernu zentralari.

2. Gobernu zentrala premiatzea aipaturiko Errege Lege Dekretua erretira dezan eta negoziazio kolektiboko prozesu deszentralizatu bati ekin diezaion. Prozesu horretan ordezkaritza duten sindikatu guztiek parte hartu beharko dute.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa agertzen du lan arloko erreforma horretako neurriak eta horiek Nafarroan aplikatzearen ondorioak sindikatu guztiekin batera aztertzeko, eta horretan guztian oinarriturik plan osagarri bat eginen du, erreforma horren alderdirik negatiboenak leuntzeko eta hori Nafarroan abiaraztearen eragina ikuspegi sozial eta ekonomikotik hobetzeko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 14an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Turismo Eskolarekin hitzarmen bat sina dezan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du sei hilabeteko epean Nafarroako Turismo Eskolarekin itun bat sina dezan, Eskolak finantza-egoera egonkorra izateko eta, horrela, bai bere funtzionamendua bera eta bai behar adinako ikasle-kopuruak ikasketa hauek hautatzea bermatzeko, modu horretan, epe luzean turismoaren sektoreak profesionalak hartzeko eginen duen eskariari erantzun ahal izateko. Itun horren indarraldiak, gutxienez ere, 2001-2002, 2002-2003 eta 2003-2004 ikasturteak hartuko ditu barnean.

2.- Irakaskuntza Kontseilua eratuko da. Era-kunde horri kontrol-eginkizun garrantzitsuak esleitzen zaizkio, eta Nafarroako Gobernuaren nahiz Nafarroako Turismo Eskolaren parte-hartzea izanen du. Turismoaren arloko prestakuntza plan integral bat eginen da, arlo honetako irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko eta, hortaz, turismo eskola horretan prestatzen diren profesionalen kalitatea hobetzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren jarrera, Urbasa-Andiako natur parkea ez baitu natur eremu babesgarri gisa errespetatu".

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko ekainaren 14an egindako Osoko Bilkuran, aipatutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko ekainaren 4ko 61. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontrautasuneko errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka

ATZERA BIDALITAKO MOZIOA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez datorrela bat gobernu zentralak konstituziokontrautasuneko errekurtsioa jarri izanarekin Bardeako natur parkea handitzearen aurka".

Biltzarreko Osoko Bilkurak, 2001eko ekainaren 14an egindako bileran, foru parlamentari Milagros

Rubio Salvatierra andreak aipatutako mozioa atzera bidali zuela jakitun zegoela adierazi zuen. Mozio hori 2001eko maiatzaren 2ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko ekainaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko ekainaren 13an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da aho-hortzetako arretak izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat aurkez dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat aurkez dezan sei hilabeteko epean; hain zuzen ere, aho-hortzetako osasun-laguntza, ortodontziak barne direla, 18 urtetaraino zabaltzeak Nafarroako Ogasunarentzat izan lezakeen kostuari buruzko azterlan bat.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko ekainaren 13an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da kontuan izan ditzan zenbait irizpide farmazia-eskaerak ebazterakoan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du farmazia-eskabideen ebazpen-prozesuan honako irizpide hauek kontuan izan daitezen:

1) Gure ustez, eskabideen hurrenkera kronologikoak ez du irizpide bakarria izan behar. Bidegabekotzat jotzen dugu, erregistroei buruz emandako azalpenetan oinarrituz; izan ere, gai serio bat halabehararen eta kasualitatearen baitan uzten da.

2) Auzitegi Gorenaren 1984-11-20ko eta 2000-07-18ko epaiak argigarriak dira gai honetan, eta gure iritziz kontuan hartu behar diren irizpideak agertzen dituzte.

3) Toki berari buruzko eskabideen kasuan –halakorik gertatuko dela ulertuko da soilik eskari bat baino gehiago dagoenean eremu berarako, farmazien artean 150 m baino gutxiagoko distantzia dutenak eta erregistro publiko batean egun berean aurkeztuak, hain zuzen ere erregistro

horien funtzionamendu ez-homogeneoak kalterik egin ez diezaien eskatzaileei–:

a) Ez dirudi bidezkoa denik segundu gutxi batzuk erabakigarri suertatzea baimena emateari dagokionez.

b) Toki berari buruzko eskabideen kasuan, Osasun kontseilariak interesatuen arteko adostasuna bilatu eta erraztu beharko luke, eskatzaileen borondatea farmazia bat irekitzea dela dirudiela-ko.

c) Ezin bada akordiorik iritsi, ebazpena irizpide objektiboagoetan, baremoa kasu, oinarritu beharko litzateke, esperientzia eta curriculumak kontuan hartuz.

4) 2001eko apirilaren 3a baino lehenagoko lekualdatzeen kasuan, horiek baimendu beharko lirateke legea blokeatzeko abusuak ez direla egiaztatzen den guztietan. Bi hilabeteko epe bat ezarri beharko litzateke, eskaturiko lekualdatzeak benetan hori duela helburu egiaztatzeko.

Apirilaren 3an eta handik aurrera aurkezturiko lekualdatze-eskabideak farmazia irekitzeko eskabideen espediente berean sartu beharko dira.

5) Gezurrezko lekualdatzeen eta nahi ez diren farmazietarako eskabideen arteko blokeatzea saihestea. Horretarako, hauxe proposatzen dugu:

a) Espedienteak behin-behinekoz ebaztea, eta 15 eguneko epea ematea, halako moldez non eskatzaile bati farmazia bat esleitzen bazaio eta eskabide gehiago baldin baditu bat aukeratu eta gainontzekoei uko egin ahal izan diezaien. Epe zehatz eta publikoa, ziurgabetasuna saihesteko.

b) Espedienteen behin betiko ebazpena beranduago izan dadila; bi hilabetetan egin liteke.

6) Komenigarria litzateke inolako elementu komunik gabeko espedienteak lehendabizi ebaztea, eta azkar egitea, maiatzaren hasierarako.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “biharamuneko pilula” eman dezan

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko ekainaren 13an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “biharamuneko pilula” eman dezan”.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko ekainaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da “biharamuneko pilula” eman dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du larrialdiko antisorgailuaren tratamendua Osasunbidearen osasun prestazio gisa bermatu eta finantzatu dezan emakumeari laguntzeko zentroetan, oinarrizko osasun laguntza zentroetan, osasun sare publikoan eta larrialdiko zerbitzuetan, Yuxperen pautaren edo levonorgestrola delako osagai aktiboaren bitartez, eta halaber laguntza eta informazio berezia ematea, emakumeen osasunerako beharrezkoak ez diren arriskuak ekiditeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du errezeta mediko batez berma dezan levonorgestrol "biharamuneko pilula" lortuko dela, eta berma dezan bai sendagai horren diagnostikoan nahiz ematean ukituriko osasun langileen kontzientzia eragozpenerako eskubidea, bai bera eskuratzea behar duten erabiltzaileen eskubidea.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du abian jar dezan informazio kanpaina bat "biharamuneko pilulak" erabiltzaileengan sor ditzakeen albo-ondorioei buruz, eta sexu-heziketari buruzko berriazko programa bat egin dezan nahigabeko egoerak saihestera bideratua.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2001eko ekainaren 4an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

Lehena. Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzeko deialdia onestea

Bigarrena. Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko ekainaren 4an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzekoa

Deialdi honen oinarriak ondoko hauek dira:

1. oinarria.- Arau orokorrak.

1.1. Deialdi honen xedea da Nafarroako Parlamentuko bi legelari lanpostu huts lekualdatze-lehiaketaren bitartez betetzea.

1.2. Deialdi honen bidez izendatutako izangaiek Biltzarreko funtzionarioentzat, eta bereziki legelarien kidegokoentzat ezarritako eginkizunak bete eta horien eskubide eta betebeharrak izanen dituzte.

Hauexek izanen dira haien eginkizunak:

Biltzarreko organoei aholkularitza juridiko eta tekniko ematea, eta ebazpenak, txostenak, irizpenak eta aktak egitea; Parlamentua ordezkatu eta defenditu organo jurisdikzionaletan eta Konstituzio Auzitegian, eta halaber goi mailako azterketa eta proposamenak egiteko eginkizuna.

1.3. Lanpostuak A mailakoak dira eta lansariak maila horri dagozkionak izanen dira, eta Nafarroa-

ko Parlamentuaren plantilla organiko indardunean zehazten diren osagarriak gehituko zaizkie.

1.4. Deialdi honetako lanpostu kopuruari gero-ago beste zenbait gehitzen ahalko zaizkio, alegia, epaimahai kalifikatzaileak lehiakideen zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, deialdia egin duen organoari igortzen dion egunean hutsik daudenak.

2. oinarria.- Hautagaien betebeharrak.

2.1. Nafarroako Parlamentuko Langileriaren Estatutuko 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, lanpostu horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez beteko dira. Lehiaketa horretan parte hartu ahal izanen dute jardunean, zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian dauden Kontuen Ganbarako eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko funtzionarioek, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) A mailako funtzionarioa izatea.
- b) Zuzenbideko lizentziatu tituluaren jabe izatea.
- c) Kontu Ganbarako legelariaren edo Nafarroako Gobernuaren aholkulari juridikoaren izendapena hartu izana eta aholkulari juridikoaren kargua hiru urtez, gutxienez, egiaz bete izana, aholkulari juridikoaren izendapena dutenen kasuan.

Lanpostua gorderik izan gabe, nahitaezko edo borondatezko eszedentzian dauden funtzionarioek lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartu ahaliko dute, baldin eta deialdian eskatutako baldintzak betetzen badituzte, eta, horrela, jarduneko zerbitzuan berriz sartu eta lanpostua behin betikoz adjudikatuko zaie.

2.2. Aurreko baldintzak deialdi honen 3. oinarrian ezarritako epe eta eran egiaztatu beharko dira. Baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dire-

la ulertuko da. Era berean, izangaiek 2. oinarri honetako 1. atalean esaten diren baldintza guztiak bete beharko dituzte hautapen prozesuak diraei-no. Hautapen-prozesua izendapenarekin bukatuko dela ulertuko da.

3. oinarria.- Eskabideak.

3.1. Lekualdatze-lehiaketan parte hartu nahi dutenek behar den eskaera aurkeztu beharko dute, eskabide gisa, eredu ofizialarekin bat (deialdi honen II. eranskina). Bertan jarriko dituzte izendeiturak, adina, nortasun agiriaren zenbakia, helbidea eta telefonoa, halakorik badute.

3.2. Hurrengoak erantsi behar zaizkio eskabideari:

– Deialdi honen 2. oinarrian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituztelako ziurtagiriak.

– Alegatutako merezimenduen zerrenda ordenatua, I. eranskinean aipatzen den baremoari jarraikiz sailkatuak, eta berauen egiaztagiria, behar bezala kautotuak.

3.3. Eskabideak Nafarroako Parlamentuko lehendakari zuzenduko zaizkio, eta egun eta ordu baliodunetan aurkeztuko dira Parlamentuko Erregistro Orokorrean, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hamabost egun naturaleko epearen barruan.

Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

4. oinarria.- Izangaien onarpena.

4.1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du. Zerrenda Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta onartutako izangaien izen-deiturak erakutsiko ditu.

4.2. Interesatuak egoki deritzeten erreklamazioak aurkeztu ahalko dituzte behin-behineko zerrendaren aurka eta akatsik izan bada, zuzendu, zerrenda hori Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita bost egun naturaleko epearen barruan.

4.3. Aipatu epearen barruan eskabiderik aurkeztu ezean, Parlamentuko lehendakariak lehiaketa hutsik gelditu dela adierazten duen ebazpena emanen du. Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4.4. Erreklamazioak egiteko epea iraganik eta horiek ebatzita, Parlamentuko lehendakariak onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onetsiko du, eta Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitaratuko da. Hautagai bakarra ere onartu ez bada, lehiaketa hutsik gelditu dela joko da.

5. oinarria.- Epaimahai kalifikatzailearen osaketa, eraketa eta jarduketa.

5.1. Merezimenduen lehiaketa epaitu behar duen epaimahaia ondoko kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: Isabel Beriain Luri andrea, Nafarroako Parlamentuko lehen idazkaria.

Ordezkoa: José María Aierdi Fernández de Barrena jauna, Nafarroako Parlamentuko bigarren idazkaria.

Mahaikidea: Langileen Batzordeak izendatu beharrekoa.

Ordezkoa: Langileen Batzordeak izendatu beharrekoa.

Mahaikidea: Pablo Díez Lago jauna, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusia.

Ordezkoa: Adolfo Morales Gordo jauna, Nafarroako Parlamentuko legelaria.

5.2. Epaimahai kalifikatzailea izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda argitara eman ondoko bost egunetako epearen barruan eratu beharko da.

Horretarako, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

5.3. Jardun ahal izateko, kideen gehiengoak bertan egon beharko du.

Erabakiak gehiengo hartuko dira eta mahai-buruak kalitatezko botoa izanen du.

5.4. Deialdi honen oinarriak ulertu edo aplikatzean sor daitezkeen zalantzak edo erreklamazioak, bai eta aurreikusita ez dauden kasuetan egin beharrekoa ere, epaimahaiak ebatziko ditu.

6. oinarria.- Merezimenduen kalifikazioa.

6.1. Izangaiek alegatu eta egiaztaturiko merezimenduak deialdi honen I. eranskinean azaldu baremoari jarraikiz kalifikatu eta puntuatuko ditu epaimahaiak.

6.2. Alegatutako merezimendu guztiak agirien bidez frogatu beharko dira, izangaiek lekualdatze-lehiaketa honetan parte hartzeko eskabidea aurkezten duten unean.

Izangaiek alegatutako merezimenduen gaineko argibideak eta datu osagarriak eskatu ahalko ditu epaimahaiak.

6.3. Epaimahaiak ezin izanen du, inolaz ere, alegatu eta agirien bidez frogatu ez den merezi-

mendurik baloratu, ez eta atal bakoitzean zehaztu gehieneko puntuazioa baino altuagorik eman ere.

6.4. Lehiakideen puntuazioetan berdinketa gertatuz gero, administrazio publikoei zerbitzuak ematen antzinasun handiena dutenen aldeko erabakia hartuko da. Horrela ere berdinketak irauten baldin badu, lehiakide zaharrenaren alde ebatziko da.

6.5. Merezimenduak kalifikatu ondoren, epaimahaiak partaideek lorturiko puntuazioak paratuko ditu Nafarroako Parlamentuko iragarki oholean, eta bost eguneko epea irekiko du interesdunek beren eskubidearen mesedetan balorazio horri buruz komeni zaiena alega dezaten.

7. oinarria.- Gainditu dutenen zerrenda ordenatua eta lanpostuaren esleipena.

7.1. 6.5 oinarrian aipatzen diren erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak izangaien zerrenda, erdietsitako puntuazioaren arabera, igorriko dio Nafarroako Parlamentuko Mahaiari. Horrek, hala behar izanez gero, hasieran deitutako lanpostuen kopurua handitzeko behar den erabakia hartuko du. Halaber, Mahaiak zerrenda hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin aginduko du.

7.2. Biltzarreko Mahaiak puntuaziorik altuena lortu duten izangaiei emanen dizkie lanpostuak, eta haien izendapenak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezten aginduko du.

8. oinarria.- Lanpostua hartzea.

8.1. Izangaiek izendatu eta hamar egun naturaleko epearen barruan hartu beharko dute lanpostua, izendapenari buruzko erabakia jakinarazten zaienetik hasita.

8.2. Aipatu epean eta aski justifikaturiko ezinbesteko kasuetan salbu, jabetza hartzen ez duen lehiakideak lehiaketaren jardunetatik sortutako eskubideei uko egiten diela ulertuko da, eta hala izanik, aurreko oinarrian adierazi zerrendan hurrengo den izangaiarekin beteko da lanpostua.

9. oinarria.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, deialdi honetako oinarrien, izendatzeko erabakiaren eta Nafarroako Parlamentuko Mahaiak deialdi hau dela-eta hartzen dituen gainerako erabakien aurka ondoko errekurtsioetako bat aurkez daiteke:

a) Berraztertze errekurtsioa, aukera aurkeztekoa, Biltzarreko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitara eman eta biharamunetik hilabeteko epean.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Justizi Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzibideetarako Salari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik bi hilabeteko epean.

Parlamentuko lehendakariak edo epaimahai kalifikatzaileak deialdi hau aplikatzeko burutzen dituzten gainerako egintzen aurka, gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko da, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari zuzendua, egintza edo erabakia argitara eman edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

Merezimenduen baremoa

a) Administrazio publikoetan emandako zerbitzuak:

1) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, deialdian eskaintzen den lanpostua bezalakoetan edo antzekoetan: puntu bat urte bakoitzeko.

2) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, deialdian eskaintzen den lanpostua bezalakoetan edo antzekoetan: 0,75 puntu urte bakoitzeko.

3) Edozein administrazio publikotan, langile finko gisa, arestikoa ez beste lanpostuetan: 0,25 puntu urte bakoitzeko.

4) Edozein administrazio publikotan, aldi baterako langile gisa, arestikoa ez beste lanpostuetan: 0,20 puntu urte bakoitzeko.

– Oharrak:

1go. Urteen kopurua osoa ez bada, zerbitzuan egindako aldiari dagokion puntuazioa emanen zaie izangaiei.

2gn. a) idatz-zati honi dagokion puntuazioa gehenez ere 30 puntukoa izanen da.

3gn. Lanaldi ez osoz emandako zerbitzuen kasuan, behar den zatia kenduko da.

4gn. Deialdia argitaratu ondoren emandako zerbitzuak ez dira baloratuko.

5gn. Funtzionarioa zerbitzu berezietan edo eszedentzia berezian egon deneko edo unitate organiko bateko buru edo zuzendari lanetan aritu deneko aldietako zerbitzuak egoera horietan sartzean zuen lanpostuan eman izan balitu bezala kontatuko dira.

b) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa

1) Erakunde edo zentro publikoek eta unibertsitateek antolatutako prestakuntza ekitaldietan

parte hartzea: 0,10 puntu kreditu akademiko edo haren baliokideko (10 ikastordu), gehienez ere 7 puntu.

– Oharrak:

1gn. Baloratu beharreko prestakuntza ekitaldien ikastordu zatikiak hainbanatuko dira.

2gn. Ikastorduen iraupena agertzen ez duten ziurtagiriak kreditu batekoak izanen bailiren baloratuko dira.

3gn. Ikasturte bateko iraupena agertzen duten ziurtagiriak 12 kreditukoak bailiren baloratuko dira.

4gn. Erakunde antolatzaileari buruzko betebeharrak betetzen ez badituzte ere, Administrazioak agindurik edo oniritzirik eginak diren prestakuntza ekitaldietan parte hartzea puntuazio berarekin puntuatuko da. Horien artean, espresuki, sindikatuek Administrazio Publikoetako Etengabeko Prestakuntzarako Itunen barruan antolatuak sartuko dira.

2) Kongresu edo jardunaldietan ponentziak edo komunikazioak aurkeztea, beka jasotako edo sarituriko zientzia edo ikerketa lanak egitea, aldizkari espezializatuetan lanak argitaratzea, baita itzulpenak argitaratzea: 2 puntu, gehienez ere, Epaimahaiak baloratu beharrekoak, lana edo jarduera bakarka edo taldean egin den eta biltzarrek edo argitalpenak herri, eskualde, Estatu edo nazioarteko maila duen kontuan hartuz.

3) Sektore publikoan prestakuntza ekitaldiak antolatu edo/eta horietan irakasle gisa parte hartzea, gehienez ere, puntu bat, Epaimahaiak baloratu beharrekoa, haien iraupenaren arabera.

– b) atal osoko oharrak:

1go. Deialdiko lanpostuarekin zerikusirik duten merezimenduak bakarrik baloratuko dira atal honen barruan.

2gn. b) atal honetako gehieneko puntuazioa 10 puntukoa izanen da.

II. ERANSKINA

Izen-deiturak: _____

Adina: _____

NAN zenbakia: _____

Helbidea (kalea, zenbakia, solairua eta posta kodea): _____

_____.

Telefono zenbakia: _____

AZALTZEN DUT:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren _____(e)ko _____ren _____(e)ko erabakiaren berri izan dut –haren bidez, bi legelari lanpostu huts betetzeko dei egin da– eta hartan parte hartu nahi dut:

Deialdiko 2. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen ditut eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean.

Horiek horrela,

ESKATZEN DUT:

Eskaera honetan aipatzen den lekualdatze-lehiaketan onartua izatea. Deialdian eskatutako agiriak eta alegatzen ditudan merezimenduen egiaztagiriak gaineratu ditut.

Iruñean, 2001eko _____(ren) _____(e)an

Nafarroako Parlamentuko lehendakaria

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--